



2001KO AZAROAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko azaroaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia eta Joseba Hernandez Madinabeitia.

Aktan adieraziko da Gorka Lamy Intsausti zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Urko Irastortza Aldanondo, Jose Antonio Dopazo Martin eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2001eko urriaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2000 EKITALDIKO KONTU OROKORRA.-

2000 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetarako Batzorde Bereziaren 2001eko urriaren 16ko bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2001eko urriaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2000 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

IV.- OROBIONEREN BIRRERA KITZE LANEN 10. ZERTIFIKAZIOA.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektoek, lanen 10. zertifikazioa aurkeztu dute.

...///...



...///...

Zertifikazio honen zenbatekoa BEDERATZI MILIOI BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI MILA ETA BERROGEITA BEDERATZI (9.597.049,-) pesetatakoa (57.679,43 €) da.

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenean zertifikazio honetan proiektuarekiko egon diren aldeak, hauen zergatia azaltzen dute eta eman diren prezio desbideraketak onargarriak direla adieraziz, 10. zertifikazio hau ontzat eman daitekela esaten dute.

Proiektuarekiko egondako aldeak proiektuaren aurrekontuarekiko milioi bat bederatzirehun eta hogeita zortzi mila zortzirehun eta hirurogeita hamasei (1.928.876,-) pesetatako (11.592,78 €) gehikuntza suposatzen du.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du desbideraketa hauek, bai neurketen bai aurrekontuen aldaketetan beraien arazoa dela eta ez Udalarena eta beraz ez dutela zertifikazio hau onartuko.

Hau honela, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 4 botu (EA), EA) eta aurkako 3 botuz (EH), zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

V.- GARCIA-ARROYO ETA LASA-DORRONSOROTARREKIN HIRIGINTZ HITZARMENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 13 Hirigintz Areak barneratzen da 13.3 Orubea. Orube horretan Francisco Garcia Calero eta Francisca Arroyo Gago alde bate-tik eta Jose Lasa Galparsoro eta Maria Dorronsoro Imazen jabetzakoak diren bi lursail koka-tzen dira, espedientean zehaztuta daudenak.

Pare horietan Hiribarren kalean 3 metrotako espaloia egitearren eta bestalde uholdee-tatik babestuko duen erreka bazterreko orma egiteko beharrezkoa da goian aipatutako lursai-letatik hirurehun eta hogeita bederlatzi metro eta hirurogeita zazpi dezimetro karratu (329,67 m²) okupatzea.

Okupatzea beharrezkoak diren lur azalera horien zesioaren truke, Udalak, espaloia nahiz erreka bazterreko lan guztiak bere gain hartzea, lursailaren itxitura berria egitea eta egunen batean, planeamenduaren aldaketa dela eta, lursail puska horiek aprobetxamendua balute, zeditzen dituzten lursail puska horien aprobetxamendu hori bere jabeei aitortzearen konpromezua hartzen du.

Guzti honen aurrean eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen proposa-menez, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, zera erabakitzen du:

1.- Garcia-Arroyo eta Lasa-Dorronsorotarrekin izenpetzea proposatzen den hirigintz hitzar-men hau, bere espedientean dagoena, onartzea.

2.- Hirigintz hitzarmen hau izenpetu dezan alkatea ahalmentzea.

...///...



...///...

VI.- GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.REN AKZIO EROSKETARAKO LEHENTASU-NEZKO ESKUBIDEARI UKO EGITEA.-

Ordiziako Udalak Goierrri Beheko Industrialdea, S.A.n dituen akzioetako batzu Zegamako Udalari saltzeko asmoaren berri izanda, eta aipatutako eragiketa Goierrin hasitako komertzializazio prozesuaren lehenengo ikur bezala kontsideratzen dela kontuan izanda, eta estatutu sozialetan finkatzen den eran, Udal honek, Osoko Bilkurara bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, akzio horiek erosteko duen lehentasunezko eskubideari uko egitea espreski erabakitzen du.

VII.- MOZIOA: GIZON-EMAKUME GUZTION BIZITZARAKO, ASKATASUNERAKO ETA SEGURTASUNERAKO ESKUBIDEEN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Lehendakariaren ekimenez euskal erakunde guztiak kontsideraziora jarria izan den eta Alkatetzak Osoko Bilkurara aurkeztutako mozio honek honela dio:

"Gizon-emakume guztion bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen aldeko adierazpen instituzionala.

Eusko Jaurlaritz, Foru Aldundi eta Udal erakundeetako arduradunak honako oinarri hauek plazaratzen ditugu, ordezkatzeko dugun gehiengoaren borondatearen adierazgarri.

Guztiok onartutako oinarriak:

Lehenengoa: Gizaki orori dagokio bizitzeko eskubidea, segurtasunez eta askatasunean bizitzekoa, eta erakundeoi dagokigu eskubide horiek oso-osorik betetzen direla bermatzea.

Bigarrena: Gizon-emakumeon eskubideen errespetu eta aldarrikapen horiek behar dute izan herrien elkarbizitzarako eta antolaketarako oinarri. Ez da gizarte bidezko-rik eraikiko edozein proiektu politiko aldarrikatzeko giza duintasuna urratu daitekeela onartzen duenik.

Hirugarrena: Gatazka politikoei irtenbidea bilatzeko bide onargarri bakarrak elkarriketa, elkarrenganako errespetua eta ideia guztiekiko tolerantzia dira, eta herri borondatea osatzeko politikak eta demokraziak eskaintzen dituzten mekanismoak erabiliko dira.

Laugarrena: Bakeak justiziaren eta demokraziaren fruitu behar du izan, eta ez jakineko proiektu bat gehiengoaren borondatearen kontra eta indarrez inposatu izanaren ondorio. Bakea ezin da proiektu politiko jakin baten menpe jarri, eta ezta ere indarkeria erabili proiektu politiko bidezko eta demokratikoen aldarrikapena eta gauzatzea oztopatu eta baldintzatzeko aitzakia bezala.

Ondorioz, honako konpromiso hauek jakinarazi nahi ditugu:

- 1) Bizitzeko eskubidearekiko konpromisoa, eta beraz, edozein indarkeria eta bortxakeria mota gaitzesteaz gain ETari behin-betiko su-etena exijitzen diogu, elkarbizitzaren funtsezko zutabe den aldetik.

...///...



...///...

- 2) Hiritar guztien eta bakoitzaren segurtasun eta askatasuna bermatzeko zuzenbide estatuak eskaintzen dituen baliabideak erabili eta garatzeko konpromisoa, bakoitzak bere alorrean.
- 3) Edozein motako indarkeria, intolerantzia eta terrorismo jasan duten eta jasaten duten gizon-emakume guztiekiko konpromisoa, eurekiko elkartasun aktiboa adierazteaz gain, ikuspegi etiko, sozial eta materialetik ere aintzat hartuz.
- 4) Edozein indarkeria mota errotik atera eta euskal gizartearen baitan elkarbizitza eta normalkuntza politikorako baldintza egokiak sortu asmoz eragiten diren ekimen guztiak bultzatzeko elkarrizketarekiko konpromisoa.
- 5) Gizaki orori, gizarte, politika nahiz erlijio mailako ideiangatik bereizkeriarik egin gabe, dagozkion giza eskubide eta askatasunen aldarrikapen eta justiziarekiko konpromiso etengabea, baita espetxeratuen kasuan ere, delitu larriak leporatzen zaizkienak izan arren.
- 6) Alderdi politiko bat indarkeriaren presioagatik bere proiektoa erakundeetan demokratikoki defendatzeko ordezkatuta egon ezinik gera ez dadin behar izan daitezen ekimen politiko, sozial nahiz segurtasun mailako guztiak burutzeko denon artean jarduteko konpromisoa.

Oinarri eta konpromiso hoiek betetzeko honako ekimen hauek bultzatzeko erabakia hartu dugu

- 1) Erakunde guztiek erantzun bateratua ematea terrorismoak eragindako atentatu eta hilketen aurrean. Beste batzuen artean, honako neurri hauetan gauzatuko da erantzun hori:
 - a) Euskal erakunde guztiek gaitzespen bateratua kaleratzea gizon-emakumeen bizitzaren eta askatasunaren aurkako edozein atentatu gertatzen den bakoitzean, eta indarkeriaren biktimen senitarteko eta lagunekiko elkartasuna bultzatzea euskal gizarte osoaren aldetik.
 - b) Ekintza horiek gaitzesteko antolatzen diren manifestazioetan parte hartzeko deialdi bateratua egitea, beti ere, kasuan kasuko familiaren eta udalaren borondatea kontuan izanik.
 - c) Terrorismoaren aurkako gizartearen sentsibilizazioa eta erantzuna biltzen dituen lema bateratu hau erabiltzea: Bakea eta Askatasuna, ETA ez.
 - d) Gertatzen den hilketa bakoitza salatzeke eta dolua adierazteko 15 minutuko geldialdiak egitea Udaletxe, Foru Aldundi, Jaurlaritza eta gainontzeko erakundeetako egoitzen aurrean.
- 2) Toki publikoetan gizon-emakumeen askatasunaren eta segurtasunaren aurka jar daitezkeen mehatxu eta irainezko adierazgarri grafikoak kendu edo ezabatzea, eta erakundeen laguntza eskaintzea toki pribatuetan ere horrela egin dadin.

...///...



...///...

- 3) Gizaki orori dagozkion giza eskubideak defendatzeko bultzatzen diren gizarte ekimen guztiak burutzeko Udalen eta beste erakundeen eremu publikoak eskaintzea, eta toki horien erabilera ukatzea egin nahi diren manifestazioak aipatu eskubideen aurkakoak badira.
- 4) Giza eskubideen eta indarkeria-ezaren aldeko komunikazio eta gizarte sentsibilizazio-rako kanpainia instituzionala garatzea erakunde guztien artean.
- 5) Gizon-emakume guztien askatasun eta eskubideen aurkako eraso edo kale borrokako ekintzei aurrea hartu eta saihesteko beharrezko segurtasun neurriak bultza ditzaten koordinazio eta komunikazio bideak indartzea.
- 6) Gizaki orori dagozkion giza eskubideen eta justiziaren babes arduratsuz bakea, normalkuntza politikoa eta elkarbizitza lortzeko asmoarekin jaio daitezten ekimen guztietan era aktiboan parte hartzea.
- 7) Adierazpen honekiko atxikimendu kanpaina bultzatzea euskal udalen artean, ahalik eta zabalkuntza eta partehartze handiena izan dezan hiritarren aldetik."

Une honetan Gorka Lamy zinegotzia bertaratu da.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du testu honen aurrean beste testu alternatiboa aurkezten dutela eta testu hau ere aktan jasotzea eskatzen dutela. Testu honek honela dio:

"Mendez mende Espaniak zein Frantziak, bortxakeriaz eta zapalkuntzaz, Euskal Herriari bere eskubide kolektiboak ukatu egin dizkiote. Euskal nortasuna indarrez debekatua izan da eta euskaldunoi soilik espainiar edota frantziar gisa bititzea onartu digute.

Euskaldunok bi estatu horien inposaketari aurre egin diogu, baina tamalez gure eskari zilegiak ere zapalduak izan dira eta herriaren borondateari uko egin zaio behin eta berriz.

Beraz, Euskal Herriari, herri baketsua izanik, bi estatuen indarkeriaren bitartez, menpekotasunaren egoera inposatu zaio, egoera antidemokratikoa alegia.

Inposaketa antidemokratiko honen aurka, altxatu diren euskaldunak asko izan dira eta dira. Belaunaldiz belaunaldi, euskal nortasunaren ukazioari eta errepresioari, armaz ere erantzun zaie, gatazka armatuak piztuz.

Gatazka armatua ez da sekulan izan herri honen aukera, espainiarrek bereziki hautatutako bidea baizik, Euskal Herriaren borondatea zapaltzeko eta ixiltzeko asmoz.

Gauzak honela, gaur egun bizi dugun gatazka armatuaren egoera hau ez dago ulertzerik, gatazka politikoaren baitan ez bada kokatzen, honen ondorioa dela argi dagoelako, eta bakea lortzeko, gatazka politikoaren zergatiari heldu egin behar zaie ezinbestez: Euskal Herriaren eskubideak urratzen diren bitartean, bakerik ez dugu inolaz ere lortuko eta gure historian zehar hainbestetan bezala, konfrontazio armatua atzeratu besterik ez genuke egingo.

...///...

...///...

Honenbestez, udal honek ondoko hau erabakitzen du:

1. Pertsona orok bizitzarako, askatasunerako, integritate fisikorako, eskubidea du; tamalez, eskubide hauek urratuak izaten dira gatazka politikoak ematen direnean. Hau dela eta, Euskal Herrian, eragile politiko eta sozial guztion zeregina da hiritargoak bere eskubide zibil eta politiko guztiak egikaratu ahal izateko beharreko baldintzak sortzea, gogon hartuta eskubide guzti-guztiek era global eta aldi berekoan onartuak eta egikarituak izan behar dutela. Indarrean dagoen nazioarte mailako legediaren arabera, eskubideak egikarituak izateko dira eta ez dute ez ezberdintasunik, ez hierarkiarik ez eta inolako sailkapenarik onartzen.
2. Euskal arazoa izenarekin ezagutzen duguna jatorri eta izaera politikoa duen gatazka historiko da, bertan Estatu espainiarra eta frantsesak inplikaturik daudelarik. Beraz, konponketak ere derrigorrez politikoak izan beharko du.
3. Gatazka politikoaren sorrera eta mantentzeari buruzko ulermoldeak desberdinak izanik, beraz lurraldetasuna, erabaki-subjektua eta burujabetza politikoan adierazten denez, aipaturikoak konpondu beharreko oinarritzko arazo gisa aurkezten zaizkigu.
4. Autodeterminazio eskubide, giza eskubide oinarritzko eta kolektibotzat hartua, herri guztiei aitortu behar zaie. Munduko edozein herriri bezala, Euskal Herri osoari ere autodeterminazio eskubidea dagokio eta honen aitortza egitea dagokie Estatu espainolari eta frantsesari, askatasun eta demokrazia ideietan oinarrituta dagoen heinean. Autodeterminazio eskubide euskal demokrazia eraikitzeke oinarria da eta Euskal Herrian bakea lortzeko tresna da. Inongo Estaturik ezin da demokratikotzat jo baldin eta bere menpean hartzen dituen herriei askatasunez autodeterminatzeko eskubidea onartzen ez badie.
5. Elkarrizketa eta negoziatio prozesu irekiaren bitartez bakarrik gorpuztu daiteke gatazka politikoaren konponketa, inplikaturik dauden eragileak baztertu gabe eta euskal gizarte osoaren esku hartzearekin.
6. Negoziazioak osotasunezkoa izan behar du, hau da, arazoa osatzen duten eta bere ondorio diren kontu guztiak aztertuz eta erantzunak emanez. Horregatik, konponbidea erabakitzeke negoziatioak ez ditu inposaketarik izan behar; euskal gizartearen aniztasuna errespetatu behar da eta proiektu politiko guztiak erdiesteko baldintza berdinetan kokatu behar dira; Euskal Herrian demokrazia sakondu behar da -hau da, Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dute- eta inplikaturik dauden Estatuak erabaki hori errespetatu behar dute. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.
7. Euskal gatazka politikoari irtenbide politiko eman behar zaio. Berriz, Estatu espainiar eta frantsesaren jarrerak Euskal Herriarekiko, eskubide demokratikoak errespetatu beharrean euskal hiritarren kontrako errepresioa erabiltzean datza: atxiloketak, torturak, presoek sakabanaketa, gerra zikina, eta abar.
Egun Espainiako Legedian indarrean dagoen "Lege Antiterrorista" delakoak pertsonen eskubideak ezabatzen ditu eta ez du Giza Eskubideen Komenio Europarrak zein Eskubideen Nazioarteko Itunak agintzen dutena errespetatzen. Horra hor tortura salaketak eta horien inguruan emandako epaileen erabakiak.

...///...



...///...

Hori dela eta udal honek zera eskatzen dio Gasteizko Jaurlaritzari: Ertzaintzak ez dezala legedi berezi hori erabili.

Euskal Herria, 2001-ko azaroan.”

Estensoro zinegotziak (EA) esaten du badakiela jarrerak nahiko eztabaidatuta dituzte- la baina hala ere zera adierazi nahiko lukeela: beraiek azken bolaran, batez ere Lizarra-Ga- razi inguruan elkarlan bat hasi zutela, batez ere abertzaleen artean eta elkarlan hori batez ere Batasunaren testuan azaltzen diren hiru aurreneko puntuetan oinarrituta, eta hiru puntu hauek honako hauek direla: 1) hemen arazo politiko bat dagoela, 2) arazo politikoa dagoe- nez irtenbidea elkarrizketan bilatu behar zaiola, eta 3) Elkarrizketa horren bidez herri honek erabakitzen duen nahi hori errespetatu egin behar dela. Gaineratzen du, Batasunakoek bada- kitela baita ere beraien ikuspuntutik ETak berriro ere bide armatua hartu izanak elkarlan hori zapuztu egin duela eta beraien ustez zapuzte horrek irtenbiderik ez duela gainera.

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da Alkateak aurkeztutako mozioa eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EA), EA) eta aurkako 3 botuz (EH) berau onartzea erabakitzen du.

VIII.- BEASAINGO ATENTATUARI BURUZKO MOZIOA.-

Alkatetzak aurkeztutako mozioak honela dio:

“Aurreko ostiralean Beasainen izandako ana Isabel Arostegi eta Javier Mijangos er- tzainen hilketaren aurrean zera adierazi nahi genuke:

Lehena.- Bertan erahilak suertatu diren Ana Isabel Arostegi eta Javier Mijangosen sendi eta lagunei elkartasun osoa adierazi.

Bigarrena.- Ekintza honek gure gaitzespena besterik ez dezake sortarazi, gure arbuioa eta haserrea. Herriaren zerbitzari publiko biren bizitza errotik moztu duen atenta- tu hau euskaldun guztion aurkako atentatua besterik ez da. Gure gizartearen elkarbizitza baketsu eta zibilizatua eragozten du eta pertsona guztien oina- rrizko printzipio eta eskubideen aurka eraso egiten du.

Hirugarrena.- Gure atsekabea, elkartasuna eta erabateko babesa adierazi nahi diogu ertzain- tza osoari, eta bereziki eta zuzenean Beasaingo komisaldegitik bailara guzti- rako beraien zerbitzua eskaitzen diguten ertzainei.”

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du beraiek lehenengo puntuarekin ados daudela baina ez horrela gainontzekoekin eta hori horrela abstenitu egingo direla.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EA), EA), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (EH) mozioa onartzea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak zinegotzietan gogorarazten die GOITUR-ek Guggenheim-era bisita antolatu duela abenduaren 15erako eta joateko asmoa nork duten jakin nahi duela aurrez.

...///...

...///...

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du egun horretan Udalbiltzaren batzarra dutela eta beraiek ezin dutela joan.

Amundarain zinegotziak esaten du emakumeek jasotzen dituzten tratu txar eta eraso sexualen aurrean proposamen bat daukala eta irakurri egiten du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten dio gai hori batzordean aztertu beharko dela eta ondoren hurrengo osoko bilkurara ekar daitekela.

Zumelaga zinegotziak, Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen Presidente gisa, esaten du gai hori batzordean aztertuta dagoela eta gertatzen dena dela EHTik ez dela inor joaten.

Amundarain zinegotziak esaten du kexak jaso dituztela aerobik-eko ikastaroak erderaz ematen direlako.

Sarreigi zinegotziak, Kirol Batzordeko Presidente gisa, esaten du arduratuko dela gai hori aztertzen.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



[Handwritten signature in blue ink]